

HERRI PROGRAMA

2023-2027



Maite duzun
Pasaiá

EGINGO DUGU.

ehbildu

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| AGINTALDIKO LEHEN SEIHILEKOAN GAUZATUKO DITUGUN PROPOSAMENAK..... | 5 |
| EUSKARA..... | 7 |
| HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA..... | 7 |
| EUSKALTEGIAK..... | 7 |
| KULTURA..... | 8 |
| KULTUR POLITIKAK..... | 8 |
| HERRI MEMORIA..... | 8 |
| LIBURUTEGIAK..... | 9 |
| GUNE SOZIOKULTURALAK..... | 10 |
| HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK..... | 11 |
| GAZTERIA POLITIKAK..... | 11 |
| KIROLA..... | 12 |
| KIROLAREN SUSTAPENA..... | 12 |
| KIROL INSTALAZIOAK..... | 12 |
| HEZKUNTZA..... | 13 |
| HEZKUNTZA POLITIKAK..... | 13 |
| GIZARTE EKINTZA..... | 14 |
| GIZARTE POLITIKAK..... | 14 |
| HERRITARREN ZAINZA EREDUA..... | 14 |
| FEMINISMOA ETA LGBT+..... | 16 |
| POLITIKA FEMINISTAK..... | 16 |
| LGBT+ POLITIKAK..... | 16 |
| AZPIEGITURAK..... | 17 |
| ANIZTASUNA..... | 18 |
| HIRIGINTZA..... | 19 |
| ETXEBIZITZA POLITIKAK..... | 19 |
| PLANGINTZA URBANISTIKOA..... | 19 |
| JARDUERA EKONOMIKOA..... | 21 |
| EKONOMIA LOKALA..... | 21 |
| HERRIAREN ETA PORTUAREN ARTEKO HARREMANA..... | 22 |
| TURISMOA..... | 22 |
| TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA IRAUNKORTASUNA..... | 23 |
| PLANGINTZA NEURRIAK..... | 23 |
| ENERGIA POLITIKAK..... | 23 |
| HONDAKINEN KUDEAKETA..... | 24 |
| MUGIKORTASUNA..... | 25 |
| PLANGINTZA NEURRIAK..... | 25 |
| UDAL EGITURA ETA KUDEAKETA..... | 27 |
| UDALA HERRITARRA..... | 27 |
| FINANTZIAZIOA..... | 27 |
| UDAL ZERBITZUAK..... | 28 |
| BARNE ANTOLAKUNTZA..... | 28 |
| ERAKUNDE AUTONOMOAK..... | 28 |
| LANGILEGOA..... | 29 |
| UDAL TRESNAK..... | 29 |

AGINTALDIKO LEHEN SEIHILEKOAN GAUZATUKO DITUGUN PROPOSAMENAK

Jarraian EH Bilduren gobernuak lehen egunetik abian jarriko dituen zenbait ekimen jasotzen dira, arduraz jokotuta eta bitarteko handirik gabe martxan jar daitezkeenak. Hauek izango dira EH Bilduk gauzatu nahi duen aldaketaren lehen urrats adierazgarriak.

PASAIA - HERRI MAILAKO NEURRIAK

- 1. Alkateordeen harrera lehenbailehen berreskuratzea**
Udalaren eta herritarren arteko harremana berrezartzeko neurrietan lehena izango da alkateordeen harrera ezartzea. Barrutiaren beharren arabera planteamendua izango da eta maiztasun finkoa izango duten ordutegiak ezarriko ditugu.
- 2. Herritarrekiko komunikazioa, gertutasuna eta elkarlana bermatzea**
Barruti guztietarako, herritarrekin ditugun harremanetan komunikazio gardena eta eraginkorra ezarriko dugu, hartutako konpromisoak argi utzita eta erabakien arrazoiak azalduta.
- 3. Ekintzen agenda bateratua osatzea**
Eragileek eta udalak antolatzen dituzten ekintzen agenda bateratua osatzeko bidea hasiko dugu; horretan herritarren ekimen espazioak errespetatuko ditugu eta lehentasunez tratatuko ditugu.
- 4. Herrian dauden udal lokal eta espazioen azterketari eta berrantolaketari ekitea**
Beharrezkoa da Pasaian dauden udal lokalak aztertzea eta berrantolaketa egitea. Hutsik edo gaizki aprobetxatuta daudenak atzeman eta horien erabilera, akordio bidez, herri eragileen eskura jarriko dugu.
- 5. Berehalako neurriak hartzea mugikortasunean**
Herritarrekin landutako mugikortasun plana garatzeko prozesua abiatuko dugu eta herri osoa arautuko duen aparkaleku ordenantza landuko dugu, bertakoak lehenetsita eta bisitariak herriko kaskoetara ibilgailuarekin sar daitezen ekiditeko neurriak hartuta.

DONIBANE

- 6. Larrialdi plana lantzea**
Herritarrekin eta larrialdi zerbitzuetako ordezkariekin batera Donibanerako anbulantzia sistema, bihotzekoen makina eta suteen aurkako instalazioa aintzat hartuko dituen larrialdietako plana erdietsiko dugu.
- 7. Saneamenduaren obraren jarraipenerako batzorde berezia eratzea**
Saneamenduaren obraren nondik norakoak inplikaturako herritar eta eragileekin behar bezala lantzeko batzorde berezia sortuko dugu.

SAN PEDRO

- 8. Adinekoentzat gune duina bilatzea**
San Pedroko jubilatuekin bilduko gara euren beharretara egokitutako gune duina nola atondu elkarrekin erabakitzeko.
- 9. Arraunlari kalearen peatonalizazioa herritarrekin pentsatzen hastea**
Herritarrekin elkarlanean Arraunlari kalean oinezkoentzako espazioa nola irabazi erabakiko dugu. Era berean, Portu Agintaritzari Lonjako aparkalekua lehenbailehen ireki dezan galdegingo diogu.

ANTXO

10. Espazio publikoa berrantolatzea

Topoaren obraren eragina leuntzeko asmoz, Antxon libre dagoen espazio publikoa egoera duinean dagoela bermatuko dugu. Gainera, Zumardiko parkea, bankuak, Ibaiondoko pin-pong mahaia eta saskia barrutiko beste guneren batean birkokatzea aztertuko dugu.

11. Topoaren obrari jarraipena egiteko foroa eratzea

Topoaren obraren oraina eta etorkizuna adosteko batzorde berezia eratuko dugu herritarrekin eta Eusko Trenbide Sarea (ETS) ente publikoarekin. Helburua afekzioak gutxitzea eta eragindako eragileen arteko komunikazioa erraztea izango da, besteak beste.

12. Luzuriagako proiektua herritarrekin adostea eta obra abian jartzea

Luzuriagan egin nahi dugun proiektua Antxoko herritarrekin eta eragileekin adostuko dugu obrak lehenbailehen hasi ahal izateko. Eraikinaz gain, inguruari ere erreparatuko diogu espazio horiek ere ordenatzeko.

TRINTXERPE

13. Karmengo Amaren patioa eta Andonaegiko futbol zelaia herritarrei zabaltzea

Eskolaren patioa eskola jarduerak baimentzen duenean irekiko litzateke, eta futbol zelaiaren kasuan, partidarik eta entrenamendurik ez dagoenean irekiko dugu.

14. Illunbe Arraun Elkartearen egoerari irtenbidea bilatzea

Trintxerpeko arraun klubarekin elkartu eta ordezeko instalazioak lehenbailehen izan ditzaten lagunduko diegu. Bien bitartean, materiala gordetzeko eta elkartearen jarraikortasuna bermatzeko behin behineko soluzioa bilatuko dugu.

EUSKARA

HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA

Euskarari lehentasuna emango dio EH Bilduk eguneroko jardunean eta arlo guztietan euskara ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izango da, baita jardun instituzionalean ere. Honez gain, euskara zeharkako arloa izango da, hizkuntzaren normalizazioa lortze aldera. Horretarako, hurrengo tresnak baliatuko ditugu:

15. Euskararen Aholku Batzordea (Bokale) indartzea

Bertako eragileekin batera definituko dugu euskararen normalizazioaren prozesua.

16. Udalaren euskara plana berritzea

Udalaren arlo guztiek, tekniko zein politikoek, hizkuntzaren normalizazioan aurrera urratsak eman ditzaten lan egingo dugu.

17. Euskararen plan estrategikoko neurriak gauzatzea

Beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak, politikoak eta giza baliabideak ezarriko ditugu.

18. Erreferente euskaldunak lantzea

Udal ordezkariengandik hasita, eta udaletik haratago, herrian euskararekin harreman estua duten gazte, guraso zein adineko erreferenteak indartuko ditugu eta erreferentzia euskaldunak garatzeko lan egingo dugu.

19. Euskarazko baliabideen ugaltzea laguntzea

Euskarazko produktuen katalogoa zabaldu eta behar adina tresna euskaratzeko lan egingo dugu, arreta berezia haurrengan eta gazteengan jarritz. Horrez gain, herriko paisaia linguistikoa euskararen normalizazioa burutzeko ekintzak egingo ditugu Laurak Bat merkatarien elkartearekin elkarlanean.

GAZTEAK ETA HIZKUNTZA

Haurren eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko eta handitzeko urrats kualitatiboak emango ditugu. Horretarako:

20. Haurrentzat eta gazteentzat diren ekintzen euskaratzea sustatzea

Udalarenak ez diren aisialdi eta kirol arloko eskaintzak euskaraz izan daitezen baliabideak jarriko ditugu.

21. Gazte aliatuak bilatzea

Gazteak erdigunean jarriko ditugu eta herrian bide honetan lagunduko diguten gazte aliatuekin egingo dugu lan, euskarari dagokionean eta beste hainbat arlotan ere.

EUSKALTEGIAK

22. Euskara ikastea doakoa izatearen bidean urratsak ematea

Beka eta hobari sistema zabaltzeko bideak aztertuko ditugu dagokien neurriak abian jartzeko.

KULTURA

KULTUR POLITIKAK

Kultur eskaintza herritarren garapenerako ezinbesteko elementua da, eta ondorioz, euskara eta kulturaren ur emariaren sorburu izan behar du. Horrez gain, herri bizia eta dinamikoa bultzatzeko motore da (izan soziala edo ekonomikoa) baita haur, gazte zein adinekoen aisiaren parte ere. Honengatik guztiagatik, ezinbestekoa deritzogu kulturaren biziraupena eta garapena bermatzeko lan egitea, betiere Pasaiaiko kulturentzaren ikuspegi integrala eta integratzailea landuz.

Herri eragileen jarduna eta udalaren jarduna bat eginik herriko kultur eskaintzaren inguruko hausnarketa mahaigaineratzea eta horrekin lotutako proposamen eta molde berriak martxan jartzea izango da EH Bilduren helburua. Horretarako:

23. Kultur eskaintza indartzea eta berrantolatzea

Adin, kondizio eta barruti guztietako herrikideentzat kultur eskaintza sustatuko dugu. Horretarako, udalak programatutako kultur ekimenak egotea bermatuko dugu eta bertako sortzaileei emango diegu euren espazioa, gertuko kultura sustatuz.

24. Kultur politikak alorrean ari diren eragileekin elkarlanean aritzea

Herriko sortzaile eta kultur eragileekin etengabeko elkarlana sustatuko dugu eguneroko jardunean eta kontra programaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dugu.

25. Kultur mahaia eratzea

Eragileen arteko eta eragileak eta udalaren arteko koordinaziorako eta, besteak beste, programazioa elkarrekin adosteko foroak izango da.

26. Kultur ekimenen agenda bateratua, integrala eta koordinatua sortzea

Udalak eragileen ekimenak babestuko, lagunduko eta promozionatuko ditu. Honez gain, udalaren programazioa eta eragileena koordinaturik eta elkarri oztopatu gabe egin daitezkeen lan egingo dugu, sinergiak sortuz eta bikoizketak ekidinez. Eragileen ekimenak kultur agendan txertatuko ditugu.

27. Elkarrekin elkarlana erraztuko duten baliabide informatikoen sorta osatzea

Bertan, udalak elkarrekin eskura jarritako materiala, formazio aukerak, diru laguntzak egiteko erraztasunak, udal aretoak erreserbatzeko formularioa, etab. topatu ahal izango da. Baliabide hauek eragileen beharretatik abiatuz eta euren eskaeretara egokituz sortzeko konpromisoa dugu.

28. Kultur diru laguntzen aurrekontua handitzea

Herri eragileek antolatutako ekimenei dagokien garrantzia eta tokia emango diegu. Ohiko ekimenen diru laguntzen ordenantza berritzeaz aparte, aurreikusi gabeko jarduerak finantzatzeko diru laguntza berria sortuko dugu.

HERRI MEMORIA

“Itsasoak badu memoria, badu beste itsasoen berri” aipatu zuen aspaldi Joseba Sarrionandiak, baina memoria zein gure herriko historia kontatzeko modu eta ertz asko egon dira. Memoria eraikitzailea egiten hasteko garaia iritsi da, atzera begiratu, arretaz ikusi zein entzun eta horri esker aurrera egiteko. Pasaia kohesionatua nahi dugu bere aniztasunean, horregatik landu nahi dugu historia zein memoria bere osotasunean.

29. Victor Hugo Etxea bereganatzeko modua aztertzea

Egun Kutxa Obra Sozialarena den museoa udalak bereganatu eta berriro ireki ahal izan dadin lan egingo dugu. Horretarako, Kutxarekin jarriko gara harremanetan.

30. Herriko langileen eta langile mugimenduen memoria lantzea eta zabaltzea

Langileen eta euren borroken memoria zaintzeko eta berreskuratzeko ahalegina egingo dugu, Ategorrietako Sarraskia kasu. Honekin, ontzigintzaz harago doan arrantzaleen memoria berreskuratzeko urratsak emango ditugu. Gainera, Luzuriaga eta Ciriza langileen memoriaren ikur bilakatuko ditugu gune horietan memoriarako espazio iraunkorrak eskainiz.

31. Emakumeen memoria osatzeko urratsak ematea

Historiaren curriculum ezkutuan gelditu izan dira gure herriko emakumeak ere. Herri arrantzale zein industrial moduan defendatu ohi dugu Pasaia, baina ezin ahaztu arraia saltzen zutenak, arraia gatzatzen zutenak, sareak egiten zituztenak... Luzuriagako fundizioan ere izan ditugu emakumeak, zaintza lanak sekula ahaztu gabe. Haiek Pasaia eraikitzeke egin duten lana balioan jarriko dugu, besteak beste haien senarren abizenez izendatutako kaleak haien izenean jarri.

32. Memoria zabalaren eta osoaren bidean lanean hastea

Errekonozimenduen alorrean lan egiteko prestutasuna dugu eta horretarako lan egingo dugu. Era berean, herriko preso eta senideen egoera zein den begiratu eta dagozkien laguntzak eta babesa bideratuko ditugu udaletik, bereziki gaixotasun kasuan.

LIBURUTEGIAK

Liburutegiak kulturaren eta hizkuntzaren arnagune bilakatzea da EH Bilduren helburua. Horretarako:

33. Liburutegiak hizkuntzaren eta kulturaren arnagune bihurtzea

Dagoeneko martxan dauden proiektuei bultzada berezia emango diegu, esaterako, irakurle klubei edota herri-memoriarekin lotutako ekimenei, eta ekimen berriei bidea zabalduko diegu.

34. Idazleen egonaldiak bultzatzea eta berreskuratzea (Hugoenea)

Egonaldiak egin daitezten bultzatuko dugu, ondoren sortzaileek bertan ondutakoa bertako herritarrekin eta elkarteekin partekatu ahal izateko eta herriko sortzaile eta kulturale zein Hugoeneara etorriko direnen arteko sinergia berriak sortzeko.

35. Ordutegia eta zerbitzuak zabaltzeko aukerak aztertzea

Gazteen azterketa garaian ordutegia zabaltzea aztertuko dugu. Horrez gain, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko urratsak emango ditugu.

36. Informazio eta Komunikaziorako Tresnak (IKT) hobetzea

Liburutegietako IKTak hobetu eta espazioak berrantolatuko ditugu, esaterako, irakurtzeko espazioa, talde-lanetarako gelak, ikasteko gela, IKT gunea, etab. zehaztuta.

HERRIKO JAIK

EH Bildutik garbi ikusten dugu Pasaia jaiek deszentralizatuak izan behar dutela. Barrutian barrutiko errealitatea errespetatuz eta hauen autonomia, eta hein batean, autogestioa eta elkarlana bermatuz. Horretarako hurrengo neurriak jarriko ditugu abian:

37. Jai ereduaren gaurkotzea

Jai herrikoiak, parte hartzaileak, feministak eta euskaldunak bultzatzeko hautua egiten dugu eta hori lortzeko bidean urratsak emango ditugu.

38. Jai Batzordeen figura indartzea

Batzordeetan dauden eragileekin elkarlanean arituko gara, euren autonomia errespetatuz. Alkateordearen eta jaietako dinamizatzailearen figuraren eta eginbeharren inguruko hausnarketa abiatuko dugu bertako eragileekin, antolaketa-eredurik eraginkorrena elkarrekin adosteko.

39. Nortasun juridikorik gabeko elkarteekin lan egitea

Tankera horretako elkarteek dituzten jarduteko zailtasunak leuntzeko moduak aztertuko ditugu.

40. Itsas Festibala Pasaiari egokitzea

Jaialdiak izan behar duen eredia herritarrekin batera zehaztuko dugu, baita eragileekin elkarlana areagotu eta hauen parte hartzea sustatu. Herritarrek euren jaialdi sentitzea nahi dugu, denon parte hartzea eta kolaborazioa bultzatuta.

GUNE SOZIOKULTURALAK

41. Gune soziokulturalen erabilera sustatzea

Kultura azpiegituren kudeaketa hobetu eta eredu irekiagoa bultzatuko dugu. Barrutietako eta herri osoko eragile kulturekiko harremana sustatuko dugu eta aretoek erabilera balioanizta izatea bultzatuko dugu, publikoak diren eraikinak benetan erabilera publikoko eginez. Erabilera eksklusiboen beharrei erantzuteko lagatzeak hitzarmen bidez gauzatuko ditugu.

42. Luzuriagako bulego eraikina gune soziokultural anitza bilakatzea

EH Bilduk lortutako finantzaketari esker udalak, herritarrek eta eragileek elkarrekin eta elkarlanean eraikina birmoldatu eta barrutiaren behar soziokulturei erantzungo dien proiektua garatuko dugu bertan.

43. Ciriza musikaren eta kulturalen topagune bihurtzea

EH Bilduk udalak Ciriza bereganatzeko lortutako akordioa gauza dadin lan egingo du. Bien bitartean, Trintxerpeko elkarteekin etorkizuneko Ciriza diseinatuko dugu.

44. Blas de Lezo Itsas Arrantza Eskolako aretoa

Hezkuntza zentroaren ekitaldi aretoa herritarrek ere erabili ahal izateko aukera aztertuko dugu ikastegiaren arduradunekin batera. Izan ere, beharrezkoa baita bai ikasleek eta baita herritarrek ere kultura ekipamendu egokiak gozatu ahal izatea.

45. Eraikin soziokulturalen mantenu egokia egitea

Mantenu-protokoloa eta plana garatuko ditugu. Honez gain, kultur eta gizarte eragileei udal instalazioetako materiala modu egokian erabiltzeko eta zaintzeko laguntza teknikoa eta formakuntza eskainiko diegu.

HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK

GAZTERIA POLITIKAK

Gazteei protagonismoa eman behar zaie, euren kezkek entzun behar dira eta horretarako parte hartzeko eta ahalduntzeko guneak eskaini behar zaizkie. EH Bilduk konpromisoa hartzen du gazteen nahien eta beharren arabera politikak eta ekintzak garatzeko, betiere hauek erdigunean jarriz eta euren garapen pertsonalerako autonomia emanaz. Horretarako neurriak:

46. Eskubidean plana bultzatzea

Udal teknikariek eta ikastetxeetako haur eta nerabeekin elkarlanean haurren eta nerabeen parte hartze aktiboan eta ahalduntzean sakonduko dugu eta gobernuaren politiken erdigunean kokatuko ditugu beste kolektibo zaugarriekin batera.

47. Pasaiake Gazte Plana idaztea

Egungo gazteriaren egoeraren diagnosi partekatua egin eta hortik eratorritako lan-ildoak eta neurriak gazteekin eta gazte kolektiboekin batera garatzen hasiko gara.

48. Gazteak gazteria politiken protagonista bilakatzea

Gazteen parte hartzerako espazioak sortuko ditugu eta eurekin elkarlanean arituko gara, bereziki, eurengan eragin zuzena duten erabakiak hartzeko momentuan.

49. Gune soziokulturalen erabilera sustatzea gazteen artean

Musika entseguak egiteko, ekintzak antolatzeko edota emanaldiak programatzeko autogestioan eta kogestioan oinarritutako kudeaketa ereduak bultzatuko ditugu.

50. Udalaren haurren, nerabeen eta gazteen aisialdi eskaintzaren gidaritzia bateratua sustatzea

Martxan ditugun zerbitzuen kalitatea hobetu eta bitartekoen eta zereginen eguneratzea burutuko dugu. Esaterako, Ludoteken, Kuadrillategiren, Gaztelekuen eta Faktoriaren eskaintza gainbegiratuko dugu bikoizketak ekiditeko eta martxan ditugun egitasmoak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen.

51. Gazte elkarteei formakuntza eskaintzea

Ikastaroetan parte hartzeko aukerak eta baliabideak eskainiko dizkiegu bertako begiraleek eta hezitzaileek egun suertatzen diren problematika ezberdinei aurre egiteko estrategiak gara ditzaten.

52. Gazte etxebizitza politikak garatzea

Udalaren eskumenen baitan, emantzipazio adinean dauden gazteei informazio bideak erraztu eta udalaren zein beste erakundeen dirulaguntzak eskuratzeko informazioa eta laguntza eskainiko dizkiegu (*ikus etxebizitza politikak*).

KIROLA

KIROLAREN SUSTAPENA

Jarduera fisikoa osasun iturria izateaz gain, herriaren ehun soziala josteko ezinbesteko osagaia ere bada. Banakoen eta taldeen onura bilatuko duten kirol politika publikoak gauzatuko ditugu. Programa honetan maiz agertzen den moduan, politika publiko hauen definizioa eraginduekin batera egingo dugu, bai elkarrekin eta baita kirol elkarrekin ere.

53. Oarsoaldea mailako kirol txartela bateratua sortzea

Merezi ote duen aztertuko dugu, izan ere, egungo antzeko programen irismena oso txikia baita. Horretarako eskualdeko udalekin eta Garapen Agentziarekin elkarlanean arituko gara.

54. Kirola inklusiorako elementu gisa baliatzea

Egoera sozioekonomiko kaskarrean edota eskusio egoeran dauden haurren eta gazteen integrazioa kirol eskaintzaren bitartez landuko dugu, herri bizitzatik kanpo gera ez daitezen. Horretarako, kirol elkarrekin elkarte-instituzio arteko harremana estutuko dugu eta elkarlanean arituko gara.

KIROL INSTALAZIOAK

55. Kirol instalazioen egoeraren azterketa egitea

Honetan, kirolguneen kudeaketa udalak bereganatzea edo herriko elkarrekin hitzarmen bidez kudeatzea aztertuko dugu.

56. Kirol instalazioen mantenurako plana garatzea

Kirol instalazioak egoera optimoan egon daitezen mantenurako plana egingo dugu. Gainera hauek berritzeko eta modernizatzeko lan egingo dugu, egoera okerrean daudenei lehentasuna emanez.

57. Kalparra eraikina berritzea

Kalparrak herriari egiten dion ekarpena kontuan harturik, bertan dauden eragileekin elkarlanean instalakuntza hobetu eta herritik gertu egoteko lan egingo dugu.

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA POLITIKAK

Hezkuntza herri duina lortzeko ezinbesteko tresna dugu. Udalak bere gain hartu behar ditu aukera berdintasuna, ikasle eleaniztunak lortuko dituen eta hezkidetzaz aurrera eramango duen hezkuntza eredu inklusiboa ezartzearen ardurak. EH Bilduk, udaletxetik hezkuntza komunitate kohesionatu bat osatzeko baliabideak martxan jarriko ditu.

58. Hezkuntza saila haurren, nerabeen eta gazteen sustapen sailean integratzea

Udalaren eskumenen baitan lan handia egin daiteke hezkuntza sailetik. Sailak egun duen egoeraren azterketa sakona egingo dugu eta haurren, nerabeen eta gazteen sustapen sailean integratzea aztertuko dugu.

59. Herri curriculumak garatzeko urratsak ematea

Herriko gazteak herriko historian hezteko bideak abian jarri eta herri-kohesio elementu gisa baliatuko dugu. Hezkuntza eragileekin eta herrian ditugun memoria ekimen edota pertsona erreferenteekin elkarlanean egingo dugu.

60. Heziketa afektibo-sexuala indartzea (Goxatu aholkularitza zerbitzua)

Gazteak gizarte parekideago batean hazi zein hezteko da gure helburua. Hori dela eta, gaur egun sare sozialetatik zein telebistatik jasotzen dituzten "irakaspen" afektibo-sexualei aurre egin eta haien arteko harreman aske eta osasuntsuak bultzatu behar ditugu. Hori dela eta, *Goxatuk* hezkuntza formalean zein ez formalean egin dezakeen ekarpena balioan jarri eta gazteekin egoteko baliabideak bideratuko ditugu.

61. Badiako formazio zentroekin eta Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzea

Inguruko jarduera ekonomikoen beharretara egokitutako hezkuntza eskaintza gara dadin lan egingo dugu, enpresen beharrak aintzat hartu eta bertako beharginek datozkigun erronken tamainako formazioa izan dezaten.

GIZARTE EKINTZA

GIZARTE POLITIKAK

Zaintzen duen herri gisa definitu dugu Pasaia. Udalak lelo hori gauzatzeko duen tresna nagusietako bat dira gizarte politikak. Zaurgarrienen zaintza behar du politika hauen ardatz nagusia, helburua, berriz gizarte-kohesioa. Beste askotan bezala, gai hauetan ere beharrezkoa da ekintza zehatzez gain, planteamendu berritzaile eta berria egitea, Pasaia populazioaren zahartzea, etxebizitzaren krisiaren ondorioak eta beste hamaika erronka ditu herriak. EH Bilduk tamainan helduko die.

62. Herri diagnosis bultzatzea

Herriaren egoeraren mapa bat osatuko dugu gune kritikoak identifikatu eta horietan eragin asmoz.

63. Gizarte Larrialdietako Laguntzak (GLL) osatzen jarraitzea

Eusko Jaurlaritzaren eskumena izanik ere, finantzaketa handitu behar den kasuetan hau osatzen jarraituko dugu. Horrez gain, izenak dakarren estigma kentzeko lan egingo dugu eta herritarrei beharra dutenean laguntza hauek jasotzea euren eskubidea dela jakinaraziko diegu udalak dituen informazio bide eta baliabide guztiak euren eskura jarritz.

64. Gizarte zerbitzuen inguruko funtzioen eta arduren banaketa berraztertzea

Udalaren eta Foru Aldundiaren artean dagoen funtzio banaketak gizarte politiken kudeaketa zailtzen du egun. Hori dela eta, herritarrak eta batez ere zaurgarriak erdigunean jarriko dituen eredu berri baterantzko urratsak egingo ditugu, beharrezkoa balitz marko legala aldatuta eta gaindituta, eta marko horrek arautzen ez dituen eremuetan eraginda. Beharrezkoa den diagnostikoari ekingo diogu lehen unean.

HERRITARREN ZAINZA EREDUA

65. Zaintza eredu publiko-komunitarioruntz jauzia ematea

Artapen hutsetik haratago, ereduan sakonduko dugu, eskusio egoera larrienean dauden pertsonengan arreta berezia jarritz. Prozesu sozial integratzailea lantzeko konpromisoa hartzen dugu horretarako, hezkuntza eta aisialdi eskaintzan, komunitategintzan,... urrats kualitatiboak emanez.

66. Familien artatze integralean sakontzea

Egun familia terapia hauek garatzeko dauden zailtasunei aurre egiteko lan egingo dugu.

67. Zaintzan diharduten eragileen eta udalaren arteko elkarlana areagotzea

Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak, langileak, enpresak eta instituzioa bera inplikatuko ditugu elkarrekin premiei nola erantzun adosteko.

68. Adineko pertsonak egile eta eragile gisa tratatzea

Belaunaldien arteko sinergiak bultzatuko ditugu eta bakardade ez hautatuaren kontrako neurriak hartuko ditugu. Horretarako, jubilatuen egoitzekin eta adinekoen egoitzekin elkarlanean arituko gara bertako erabiltzaileen eta herriko beste kolektiboen eta udal zerbitzuen arteko sinergiak bilatuz.

69. Zaintza lanen duintzea

Udalean ditugun langileen - plantillan daudenak zein azpikontratatuak direnak - eta hauen

lan balditzen azterketa sakona egingo dugu, behar den kasuetan, neurri zuzentzaileak hartzeko.

70. Etxez Etxeko Langileen (EEL) egoera hobetzea

Langileak lan baldintza duinak dituztela bermatuko dugu, honen kontratazio irizpideak zorrozituz. Horrez gain, udalak zerbitzua bereganatzeko aukera aztertuko dugu.

71. Zaintzan diharduten pertsonen lan poltsa osatzea

Poltsa osatu eta herritarren eskura jarriko dugu. Langile hauei, formazioa, euskara eskolak, lan baldintzen inguruko aholkularitza,... eskainiko dizkiegu.

72. Herriko osasun zerbitzuak duinak izan daitezen lan egitea

Osakidetzarekin harremanetan jarriko gara Antxoko anbulategi berria lehenbailehen egin dadin, Donibanen pediarraren zerbitzua berreskuratu dezan eskatzeko eta beste zenbait osasun eskaera mahai gainean jartzeko, esaterako Trintxerpe-San Pedron egon den espezialisten galera mahaigaineratzeko.

ZAINTZA AZPIEGITURAK

73. Eguneko zentroak eta adinekoen egoitzak duintzea

Udalak dituen aukeren baitan, espazio hauek duintzeko eta modernizatzeko lan egingo dugu, erabiltzaileen, hauen familien eta langileen eskaerak kontutan hartuta.

74. Esklusio egoera larrian dauden pertsonen zentroa irekitzea

Eskualdeko gainontzeko herriekin elkarlanean esklusio egoera larrian dauden pertsonentzako errekurtso bateratuak landuko ditugu horiek ezartzeko gunerik eta modurik egokiena zein den aztertuta.

75. Pasai Antxon adinekoen eguneko zentro berria egitea

Udalak Luzuriaga I-eko etxebizitzan azpian erosi duen lokala baliatuko dugu Antxon eguneko zentro berria irekitzeko.

76. Adinberri lehenbailehen eraiki dadin lan egitea

Aldundiaren ardura izanik ere, Pasaiako Udalak herrikideen interesak aintzat hartzen direla bermatzeko neurriak hartuko ditu, bai eman beharreko zerbitzuei dagokienez, bai azpiegituraren eraikuntza lanei dagokienez ere.

FEMINISMOA ETA LGBT+

“Feminismoa” hitzetik ekintzetara pasatzeko garaia da. Transbertsalki zeharkatu behar gaitu gu, baita udala ere. Ematen diren eraso ezberdinei aurre egitetik haratago, hezteko eta praktika egoki bat eramaten hasteko momentua dela uste dugu EH Bildutik. Bidea ez da laburra izango, baina ekintza ezberdinen bitartez aurrera eramaten ditugun politika guztietan begirada feminista aplikatuko dugu, horretarako formakuntzari duen garrantzia emanez.

77. Herrian dauden pintada iraingarriak ezabatzea

Iraingarriak diren pintadak ezabatuko ditugu lehenbailehen fatxada publikoetatik. Eraikin pribatuetan dauden kasuetan, horiek ezaba daitezzen eskatuko diegu jabego komunitateei.

78. Politika feministen eta LGBT+ politiken saila sortzea aztertzea

Bertako politikei behar duten zeharkakotasuna eta garrantzia emateko sail berria sortzea aztertuko dugu. Bestela ere, hauei behar duten garrantzia eta tokia emango diegu egunerokoan.

POLITIKA FEMINISTAK

79. Lidergo feministak sustatzea

Udalaren jardunean ikuspegi feminista txertatuko dugu arlo guztietan; politikarietatik hasi eta udalak egiten duen edozein ekintza edo planetara iritsi arte.

80. Herriko jaietan puntu moreak ezartzea

Herriko eragile feministekin elkarlanean jaietan eremu ziurak ezarriko ditugu edozein motatako erasoak salatzen. Bertan, laguntza eta aholkularitza zerbitzua jaso ahalko dute biktimek.

81. Udalaren Berdintasun Plana garatzen jarraitzea

Beharrezkoak diren baliabide publikoak jarriko ditugu plana garatzeko. Puntu honetan, planak ezartzen dituen lan dinamikak abian jartzeko bigarren teknikari baten beharra aztertuko dugu.

82. Puntu beltzak desagerrarazteko eta berriak ez sortzeko lan egitea

Puntu ilunen azterketa berrituko dugu eta ekintza plana zehaztuko dugu hauek ezabatzeko.

83. Etengabeko formakuntza bultzatzea

Beharrezkoa ikusten dugu udal langile eta politikariak feminismoan eta politika feministetan formatzea. Formakuntza etengabeko dinamika jarriko dugu abian.

84. Eragile feministen aktibazioa sustatzea

Eragileekin elkarlanean indarkeria matxistari aurre egiteko eta emakumeak* ahalduntzeko estrategiak definituko ditugu. Herri elkarteak indartu eta gizartea astindu behar ditugu.

85. Haur eta nerabeekin lanketa feministak egiteko bitartekoak jartzea

Zeharkako gaia izanik, udalak garatzen dituen proiektu eta kontratazio guztiek ikuspegi feminista txerta dezaten lan egingo dugu.

LGBT+ POLITIKAK

86. Eskualdean estrategia bateratua garatzea

Eskualdean dauden esperientziak ezagutu eta horietatik ikasteko ekimena jarriko dugu

abian LGBT+ pertsonekin elkarlanean. Honekin, eskualde mailako estrategia bateratua landuko dugu.

AZPIEGITURAK

87. Kolektibo zapalduentzako espazio propioak garatzeko urratsak ematea

Kolektibo horietako ordezkariekin elkarlanean euren espazio propioa izan dezaten lan egingo dugu. Kultura arteko plaza, emakumeen etxea edo gisa bereko espazioak sortzeko eta eskaintzeko lan egingo dugu, betiere hauen helburua pertsonak ahalduntzea izanik.

ANIZTASUNA

Diskurtso arrazistak, xenofoboak eta hauek bultzatzen dituzten jarrerak ezabatzeko helburuarekin egingo dugu lan. Pasaia betidanik izan da harrera herria, izan arrantza, industria edo bestelako sektoreetara lanera etorri diren eta bizi eta lan baldintza hobetuzkoen bila etorritako pertsonak edo besterik gabe euren herrialdeetatik ihesi etorri diren herrikideak jaso dituelako. Denok gara pasaitarrak premisatik abiatuta:

88. Harrera protokoloa berritzea eta hobetzea

Enpatia eta elkar ezagutza landuko ditugu herrira datozen herrikide berrien integrazioa errazteko.

89. Mentoretza martxan jartzea

Harrera eguna sortuko dugu, herrikide berriei ongi etorria eman eta herrikideen arteko sareak handitzeko. Herriko zerbitzu eta txoko ezberdinetatik bisitak sustatuko ditugu, elkarte ezberdinen ezagutza, ...

90. Diskurtso arrazistak eta xenofoboak ezabatzeko lan egitea

Zurrumurruen aurkako kanpainak landuko ditugu eta urteroko memoria eta datuak plazaratuko ditugu. Era berean, enpatia eta elkar ezagutza sustatuko ditugu udaletik.

91. Haur eta gazte etorri berriei arreta berezia jartzea

Hezkuntza komunitatearekin batera egingo dugu, hauei, euskara ikasteko, etxeko lanak egiteko edota herriko elkarteetan parte hartzeko erraztasunak emanez.

92. Nazioarteko elkartasun kuotarekin jarraitzea

Euskal Fondoak ezartzen duen % 0,7 Nazioarteko Elkartasun kuota mantenduko dugu beharrik handienak dituzten herrialdeen garapenean gure aletxoak jartzeko.

HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA POLITIKAK

Gaur egungo sistema honetan etxebizitza merkantzia bilakatu da, pribilegio lez eskertu beharko genukeen produktua. EH Bildutik oso argi dugu etxebizitza ez dela pribilegioa, bizitza duina aurrera eramateko eskubidea baizik. Gure udal jarduna, konpetentziek aukera ematen dutenaren baitan, herritarren etxebizitza eskubidea bermatua egoteko saiakera egitea izango da.

Bestalde, hain urrun eta arrotz sentitzen den hirigintza herritarrengandik gertuago egoteko ahalegina egingo dugu eta askotan aipatzen diren trabak nola leundu daitezkeen aztertuko dugu.

93. Pasaiaiko Udal Etxebizitza Plana garatzea

Etxebizitza hutsen merkatua dinamizatzea eta alokairu sozialera bidera daitezzen lortzea izango du lehentasun, baita gazteen emantzipazioari arreta berezia jartzea baliabideak eta laguntza eskainiz.

94. Gazteen emantzipazioan laguntzeko neurriak abian jartzea

Emantzipazio adinean dauden gazteei informazio bideak erraztu eta udalaren zein beste erakundeen dirulaguntzak eskuratzeko informazioa eta laguntza eskainiko dizkiegu.

95. Alokairu soziala eta publikoa bultzatzea

Egiteke dauden etxebizitza promozioetan (Bidasoa goia, Estrataldea, Luzuriaga II, JJ Otaegi...) zein udalak eskura ditzakeen etxebizitzetan, alokairu publikoa eta soziala bultzatuko ditugu. Era berean, gazteentzako eta kolektibo zaurgarrietako pertsonentzat kuota bereziak ezarriko ditugu.

96. Baimenik gabeko etxeen salmenta ekiditeko neurriak hartzea

Etxebizitza gisa kalifikatuta ez dauden eta etxebizitza gisa saldu nahi diren etxebizitzetan salmenta ekiditeko udalaren esku dagoen guztia egingo dugu.

97. Etxe turistikoak erregulatzea

Jarduera ekonomikoa diren heinean dagokien araudiarekin erregulatu eta kopuruz mugatuko ditugu, baita ere dagokiekeen betebeharrak ezarri.

98. Etxebizitza hutsak merkaturatzeko eta alokairuen prezioa mugatzeko lan egitea

EAEko 3/2015 Etxebizitza Legeak edota Foru Arau ezberdinek horretarako ematen dituzten mekanismoak baliatuko ditugu eta Estatuan onartu berri den Etxebizitza Legeak ematen dizkigun mekanismoak ere erabiliko ditugu, besteak beste, eremu tentsionatuak izendatzeko eta alokairuaren prezioa mugatzeko.

PLANGINTZA URBANISTIKOA

99. Etxeen zaharberitze espedienteak desblokeatzeko lan egingo dugu

Zaharberitze espedienteek zergatik behar duten horrenbeste denbora aztertuko dugu eta espediente horiek azkartzeko, arintzeko eta soiltzeko neurriak ezarriko ditugu.

100. Pasaiaiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) erredaktatzeaz amaitzea

Pasaia hirigintza arloan arau erreferentziala izan dezan planaren idazketa amaituko dugu. Planean gure udalerririk etorkizunean izango duen antolamendua erabakiko da, gure

lehentasunak hauek izango dira: labur.eus/HAPO_EHBPasaia
(gazteleraz: labur.eus/PGOU_EHBPasaia)

101. “Plan Especial de Rehabilitación de los Cascos Históricos” (PERCH) gainbegiratzea
*PERCH*a gainbegiratuko dugu kaskoetan bizi diren familiei euren etxebizitzak eraberritzeko erraztasunak emateko eta gune horiek lehenbailehen biziberritzeko.

102. Udalaren Irisgarritasun Plana garatzen jarraitzea

Planak jasotzen dituen ekimenak garatzen jarraituko dugu herriko goiko auzoei eta kaskoei garrantzia eta lehentasun berezia emanaz horietan irisgarritasun unibertsala lehenbailehen lor dadin.

103. Etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko lan egitea

Hirigintza sailak gisa honetako proiektuei behar duten lehentasuna eta garrantzia emango die pertsona zaugarrien bizi-kalitatean duen inpaktua murrizteko.

104. Lehen solairuetan dauden jarduera ekonomikoak kalera jaistea

Hori horrela izan dadin lan egingo dugu. Honen helburua hirigunea dinamizatzea eta lehen solairuei etxebizitza sozial erabilera ematea izango da.

105. Jaizkibelgo militarren eremua desegitea eta parke natural izendatzea

Espainiako Gobernuari militarren eremua behingoz desegin dezala eskatuko diogu bahingoz. Lur eremu hori Natura 2000 sarean txertatuko dugu parke natural izendatuta.

JARDUERA EKONOMIKOA

EKONOMIA LOKALA

Jarduera ekonomikoa jarduera sozial nagusietako bat da. Hori dela eta, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko egokia gauzatzea herriaren garapen zuzena erdiesteko. Izaera soziala ez ezik, jarduera ekonomikoak helburu sozialak ere eduki behar ditu. Eta horiek bete betean lotu behar dira herritarren eta herriaren beraren beharrak asetzearekin. Pasaian lan eta bizi leloarekin bat etorri gara zenbait alditan eta baita oraingoan ere, izan ere, hori baita herri bizia eta Donostiaren logela-herria izatea eragozteko modua.

106. Pasaiaiko Merkataritza eta Ostalaritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) garatzea

Plana oinarri hartuta, agintaldirako plangintza eta ekintzak zehaztuko ditugu, hauek garatzeko finantzazio eta baliabide nahikoak zehaztuta.

107. Bertako ekonomiarekin eta artisautzarekin lotutako proiektuak bultzatzea

Gisa honetako proiektuak eta planak abian jartzea aztertuko dugu, bereziki, hirigune historikoak biziberritzeko helburuarekin.

108. Bertakoa eta neurrian kontsumitzearen garrantzia azpimarratzea

Sentsibilizazio programak abian jarriko ditugu, betiere, Oarsoaldea Garapen Agentziarekin eta Laurak Bat elkartearekin elkarlanean.

109. Terrazen ordenantza erreparatzea

Santiago plazako ostalaritza-terrazen erabilera baimenak aztertuko ditugu espazio publikoan elkarbizitza hobetzeko. Gainontzeko barrutietan halako egoerarik suertatzen den aztertuko dugu.

110. Trintxerpeko eta Antxoko azokak biziberritzea

Lehen sektorea biziberritzeko lan egingo dugu trantsizio ekosozialean eta ekonomia lokalaren garapenean joka dezaketen paperaz jabetuta. Azokei bultzada nola eman aztertuko dugu eta Trintxerpeko azoka berritzeko azterlana egingo dugu.

111. Bertako industria (bigarren sektorea) indartzeko plana garatzea

Oarsoaldearen laguntzaz, kapitalismoaren baitan eman den desindustrializazioari koherentziazko alternatiba bat emateko asmoarekin egingo dugu lan, bereziki, lan munduan txertatzeko poloa garatzen jarraituz (Badia Berri).

112. Badiaren inguruan ditugun formazio zentroekin elkarlanean aritzea

Inguruko enpresen beharretara egokitutako hezkuntza eskaintza gara dadin lan egingo dugu Jaurlaritzarekin eta inguruko formazio zentroekin elkarlanean, enpresen beharrak aintzat hartu eta bertako beharginek datozkigun erronken tamainako formazioa izan dezaten.

113. Oarsoaldea Garapen Agentzia berregituratzea

Eskualdea osatzen duten gainontzeko hiru udalekin elkarlanean agentzia etorkizuneko erronkei erantzuteko prest egon dadin lan egingo dugu.

HERRIAREN ETA PORTUAREN ARTEKO HARREMANA

Badiako EH Bilduk beste hainbat eragilerekin elkarlanean garatu duen “Etorkizuneko Badia” proposamen politikoa garatzeko lan egingo dugu honen helburuetako bat badiaren eta Pasaiaiko Portuaren biziberritzea izanik (ikus proposamena: labur.eus/EtorkizunekoBadiaEU).

114. “Etorkizuneko Badia” proposamen estrategikoa abian jartzea

Esan bezala, EH Bilduk beste hainbat eragilerekin elkarlanean garatu duen proposamen estrategikoan jasotako ekinbideak garatzeko lan egingo dugu.

115. Portu-hiri batzordea eratzea

Batzar Nagusiek 2020an onartutako portu-hiri batzordea martxan jar dadin eskatuko diogu Aldundiari eta Pasaiaiko Portuari *Pasaiaiko Badia* ingurugiroa zaintzeko batzordera itzul dadin exijituko diogu.

116. La Herrera Herrirak landutako ordenazio irizpideak gaurkotzea

Herri ekimenak garatutako eta udalbatzak onartutako ordenazio irizpideak mahai gainean jarrita ekingo diogu portuarekiko harremanari. Zonaldearen garapenean inguruko herritarrekin batera eta hauekin elkarlanean arituz.

117. Portuak libre utzitako espazioak publiko izan daitezen lan egitea

Arrantza Portua eta arrain lonjaren obra amaituta, herritarrentzako diren espazioak irekiak eta publikoak izan daitezen egingo dugu lan, eta bertan arrain sektorearekin lotutako bestelako aktibitateak planteatu daitezkeen aztertuko dugu, esaterako kontserba-industriarekin lotutako aktibitateak.

TURISMOA

Postal argazkitik harago doan turismo eta kultura eskaintza garatzeko konpromisoa dugu, bertako ondareari (materiala eta immateriala), euskarari eta kulturari zein gastronomiari erreparatuko diona. Horretarako hurrengo neurriak proposatzen ditugu:

118. Turismo eredu propioa garatzea

Bertako ondareari (materiala eta immateriala), kulturari eta hizkuntzari erreparatuko dion turismo eskaintza sustatuko dugu, horretarako, besteak beste, udal bisita gidatu propioak diseinatuta Oarsoaldea Garapen Agentziarekin elkarlanean.

119. Turismo gidak formatzeko programa abian jartzea

Oarsoaldearekin elkarlanean, gure herria erakutsi behar dutenek bertatik, eta euskarari zentralitatea emanda, egin dezaten lan egingo dugu, tresna egokiak zein izan daitezkeen aztertuta eta horiek abian jarrita.

TRANSIZIO ENERGETIKOA ETA IRAUNKORTASUNA

PLANGINTZA NEURRIAK

Trantsizio energetikoa eta iraunkortasuna erronka itzelak dira. Banakoon, taldeon, elkarteen, enpresen eta erakundeen egitekoa da arlo honetan ere jardutea, bakoitzak bere eratzunkizuna aintzat hartuta. Udalak egiteko zehatzak ditu kudeatzen dituen azpiegitura eta zerbitzuen alorrean, baina baita sentsibilizazio neurriak sustatzen ere.

120.2023 agendaren eta Klima eta Energia Planaren idazketa amaitzea

Dagoeneko garatzen ari diren bi planen idazketa amaituko dugu orain arteko lana osatuz eta prozesuan herritarrekin elkarlanean arituz eta euren ekarpenak jasoz. Bi plan hauek udalerraren iraunkortasunean etorkizunari begira eman beharreko urratsak definituko dituzte.

121.Itsas mailaren igoerari aurre egiteko plangintza osatzea

Plangintza osatuko dugu datozen 10 urtetan udalak hartu beharreko neurriak definituta, betiere 30-50 urteko ikusmirarekin.

122.Herritarrak sentsibilizatzeko programak eta laguntza lerroak abiatzea

Larrialdi klimatikoaren garrantziaz jabetu eta trantsizio ekosozial justuaren norabidean urratsak emango ditugu, horretarako kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak eginez eta herritarrei bidean hartu beharreko neurriak har ditzaten laguntza eskainiz.

123.Baratza komunitarioak ezartzeko guneak definitzea

HAPOn horretarako lursailak gordetzeko konpromisoa hartzen dugu. Hauen helburua, kontzientziazioa eta inguruaren zainketan zein bertako produktuen kontsumoan sakontzea izango da, baita herritarren arteko sareak sortzea ere.

124.Mater Itsas Museo Ekoaktiboarekin elkarlana areagotzea

Materrek abian dituen itsasoaren eta ingurugiroaren zainketarekin loturiko proiektuei bultzada berezia emango diegu.

125.Ekintza formatiboak abian jartzea aztertzea

Ziklo formatiboak abian jartzea aztertuko dugu, tresna zaharrak ekologikoki nola berrerabili ikas dezagun energia fosilik gabe.

ENERGIA POLITIKAK

126.Udalerriko teilatuen potentzial fotovoltaikoaren azterlana egitea

Azterlana idatzi eta herritarren eskura jarriko dugu euren etxeetako teilatuek sor dezaketen energia eta dituzten aukerak jakin eta balia ditzaten.

127.Udalaren energia kontsumoa murriztea eta auto-sorkuntzarako ekimenak abian jartzea

Udalak eredu izan behar du baita trantsizio energetikoan ere. Ondorioz, praktika egokiak eta jasangarriak bermatuko ditugu.

128.Udalaren deskarbonizazioa bultzatzea eta energia kontsumoak iturri ekologikoetatik egitea

Indarrean dauden energia kontratuak errebisatuko ditugu eta udal ibilgailuen flota progresiboki berrituko dugu hau ibilgailu hibrido/elektrikoengatik ordezkatzuz.

129. Etxebizitza jabegoei eta partikularrei energia aholkularitza ematea

Udalak duen energia teknikaria eta Oarsoaldeak eskaintzen dituen programak baliatuko ditugu honetarako. Helburua laguntza tekniko eta aholkularitza martxan jartzea da.

130. Energia komunitateak sor daitezen bultzatzea

Herritarrak eta elkarteak horretarako formatuz eta ahaldunduz.

131. Donibaneko gas azpiegituraren inguruko hausnarketa abiatzea

Herritarrekin eta bertako merkatari eta ostalariekin batera balizko alternatiba efizienteagoak eta ingurugiroarekiko errespetuzkoak bilatuko ditugu, gaiari irtenbide adostua emateko. Horrez gain, behar diren irtenbideak kofinantzatzeko bideak aztertuko ditugu.

HONDAKINEN KUDEAKETA

Datuak aintzat hartuta hondakinen % 49a besterik ez dugu bereizten gaur egun Pasaian. Nahastutako zabor kopurua, eta oro har, hondakin kopurua etengabe ari da gora eta hori ekiditeko eta murrizteko neurriak jarri behar ditu abian udalak. Lehenik kontsumoa murriztuz, etxean duguna berrerabiliz eta azkenik, ekidin ezin dugun materia behar den bezala sailkatuz tratamendu egokia jaso dezan. Horretarako:

132. Kontzientziazio eta formazio kanpainak abian jartzea

Herritarrak eta merkatariak kontzientziatzeko lan egingo dugu, baita inguruko enpresak ere. Herritarren kasuan, hondakinen sorkuntza murriztu eta sortutakoak bereizteko gakoak emanaz, eta bertako merkatariarekin eta ostalariekin euren jarduera ingurugiroarekiko ahalik eta errespetuzkoena izan dadin lan eginez.

133. Hondakinen ordenantza zorroztea eta behar den kasutan aplikatzea

Kalean justifikaziorik gabe pilatzen den zaborra edota altzariak dagokien ordutegitik eta egunetik ekiditeko lan egingo dugu. Era berean, zakurren kaka murrizteko kanpaina jarriko dugu abian fokua hauen jabeek duten arduraren jarrita.

134. Zabor bilketa berriro ere publikatzea aztertzea

Azterketa sakona bultzatuko dugu, honek duen kostua eta izan ditzakeen onurak kontutan hartuta.

135. Zabor bilketa eta kudeaketa egokia bideratzea

Edukiontzien mantenua eta garbiketa protokolarizatuz, besteak beste sistema inteligenteen implementazioaren bitartez (betetze maila, jaso den edo ez, etab.) neurtuz.

136. Edukiontziak kaleetatik ateratzea aztertzea

Garbitxokoak ezartzen joateko azterketa egingo dugu, hondakinen edukiontziak etorkizun batean kaletik atera ahal izateko.

137. Hobariak ezartzea

Herritarrei eta tokiko enpresei hobariak ematea aztertuko dugu hondakinak ongi bereizteagatik.

138. Kale garbiketa berrantolatzea

Barruti guztietan zerbitzua zabaltzeko ahalegina egingo dugu, horretarako tresneria egokia erabilia eta langileen lana berrantolatuta. Bereziki indarra jarriko dugu bisitarien areagotzeak ingurua gehien zikintzen dituen guneeetan eta uneetan.

MUGIKORTASUNA

PLANGINTZA NEURRIAK

Iraunkortasunari eta herritarron bizitza kalitateari begirako mugikortasun ereduak behar du Pasaia. Garraio bide garbiak eta ingurumenarekiko inpaktu txikiak duten alternatibak hobetsiko dituzte udalak. Ibilgailuen eta oinezkoen arteko elkarbizitza bilatuko dugu, baina kasu honetan ere zaurgarrien aldeko neurri zuzentzaileak hartuta eta ekologia eta, oro har, pasaitarren beharrak aintzat hartuta.

139. Pasaia Mugikortasun Plan Integrala idaztea

Honekin, besteak beste, oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen mugikortasunari dagozkion puntu beltzak identifikatu eta neurri zuzentzaileak aplikatuko ditugu, bidegorri sarea handitzeko lan egingo dugu eta ibilgailuak aparkatzeko guneak ordenatzeko proposamen integrala egingo dugu.

140. Oinezkoentzako bide egokiak eta zurrak planifikatzea

Bereziki haurren eta adinekoengan arreta jarriko dugu, egokiak eta zurrak diren bideak sustatuz, batez ere, eskolara eta ekipamendu publikoetara joateko bideak.

141. Trintxerpe-San Pedroko bidegorriaren proiektua idaztea

Bi barrutiak lotuko dituen bidegorriaren proiektuaren idazketa jarriko dugu abian, alternatibak aztertuta eta herritarrei horiek aurkeztuta. Honen helburua, Trintxerpe eta San Pedro Oarsoaldeko bidegorri sarearekin lotzea izango da, barrutien arteko komunikazioa errazteko, besteak beste.

142. Trafiko ordenantza berritzea eta osatzea

Donibanen, Antxon eta San Pedron garatutako ordenantzak berrituko ditugu eta bertakoei lehentasuna emango dien aparkaleku ordenantza integrala landuko dugu udalerrira osoz, betiere barrutian barrutiko errealitatea aintzat hartuta.

143. Antxoko Luzuriagako aparkalekua lehenbailehen ordenatzea

144. Aparkalekuaren kontrolerako azpiegitura autonomoak instalatzea

Ordenantza betetzen dela bermatzeko, aukera dagoen guneetan, ibilgailuen sartu irtenak mugatzeko azpiegitura autonomoak bultzatuko ditugu, hala nola matrikula irakurgailuak edo barrerak.

145. Gune komertzialak eta zabalak egungo errealitateara egokitzea

Une honetan behar duten ordutegira eta espaziora egokituko ditugu herrian ditugun zabalak, horretarako tokiko komertzioekin elkarlanean arituz eta adostasunetara iritsiz.

146. Bisitarietarako erregulatutako aparkaleku guneak ezartzea

Herriko zenbait gunetan hau nola egin aztertuko dugu, bereziki turistikoak diren zonaldeetan.

GARRAIO PUBLIKOA

147. Motora MUGI sisteman sar dadin lanean jarraitzea

Donibane eta San Pedro lotzen dituen motora zerbitzua MUGI sisteman txertatzeko lanean jarraituko dugu. Zerbitzua publikatzeko ahaleginak egingo ditugu horretarako Portuarekin eta Aldundiarekin elkarlanean arituz. Era beran, linea berriak zabaltzeko apustua egiten dugu eta horien azterlana gauza dadin lan egingo dugu.

148. Bertokoek motoran lehentasuna izan dezaten lan egitea

Motoraren erabilera altuko uneetan bertokoen lehentasuna ezartzeko neurriak aztertu eta proposatuko ditugu.

149. Herriko garraio publikoa jasagarria izan dadin lanean aritzea

Udalaren eskumena ez den arren, garraio publikoa (autobusak, motorak...) jasagarriagoan izan dadin lan egingo dugu, norabide horretan doazen proiektuak babestuz eta bultzatuz.

UDAL EGITURA ETA KUDEAKETA

UDALA HERRITARRA

Udala errealitatearen eraldaketaren traktore izan behar du EH Bilduren aburuz eta horretara egokitu behar dugu Pasaiko Udala. Departamentuen funtzionamendua helburu zehatzen arabera antolatu eta bertako langileen motibazioa eta erantzukizuna igo behar ditugu. Horrez gain, behar beharrezkoa ikusten dugu udala herritarra sortzea, herritarrekiko gertua eta pertsonak erdigunean jarriko dituen. Horretarako:

150. Alkateordeen harrerak lehenbailehen berreskuratzea

Pertsona hauek barrutian duten erreferentzialtasuna eta gertutasuna landuko ditugu herritarrek gertu senti ditzaten eta euren eskura egon daitezen.

151. Herritarren eta eragileen eskaerak erantzuteko protokoloa egitea

Eskaera guztiek behar duten erantzuna arrazoizko epean jaso dezaten lan egingo dugu. Baiezkoa denean zein ezezkoa denean arrazoiketa egokiak eginez.

152. Herritar informatua, herritar ahaldundua logika pean lan egitea

Gai konkretuen inguruan bilera monografikoak deituko ditugu agintaldian zehar eta partaidetza aktiboa sustatuko dugu egunerokoan.

153. Udala herritarrei hurbiltzeko parte hartzea sustatzea

Beharrezkoa den gaitan erabaki kolektiboak sustatuko ditugu. Era beran, udala ekintza komunitarioan trebatuko dugu hemendik aurrera diseinatzen diren politika publikoek ikuspegi hori gara dezaten.

154. Udalbatza ibiltariak berreskuratzea aztertzea

Herri deszentralizatua dugu, beraz, beharrezkoa da udalak berak eta udal organoek hurbiltze ariketak egitea. Ondorioz, udalbatza ibiltariak berreskuratzea aztertuko dugu. Era berean, udalbatza guztiak arratsaldez egiten direla bermatuko dugu herritarren parte hartzeko aukera bermatzeko.

155. Herritarren Arreta Zerbitzua zabaltzea

Gutxienez hilean behin barruti bakoitzeko arreta zerbitzua arratsaldez emango dela bermatzen saiatuko gara. Langileekin eta euren ordezkariekin landuko dugu gaia.

156. Politikarion lana ongi zehaztea

Proiektuen gidari eta bultzatzaile izan eta udal langileek egindako lana etengabe kontrolpean dugula bermatuko dugu, beharrezkoa den guztietan, dagokigun erantzukizuna hartuta.

FINANTZIAZIOA

157. Udal zerga eta tasen progresibitatean jauzia ematea

Justizia sozialean sakondu eta aberastasunaren banaketa eman dadin lan egingo dugu. Beharrezkoa den kasuetan progresibitate taula berriak sortu edota hobari berriak aplikatuko ditugu.

158. Pasaiko udalerrria autosufizientea eta ekonomikoki bideragarria izan dadin lan egitea

Finantziazio iturri berriak bilatuko ditugu. Era berean, gure udalerrria berezia dela aintzat

hartuta, Aldundiaren diskriminazio positiboa eman dadin lan egingo dugu, Portua bezalako azpiegitura handia jasaten dugulako edota geografikoki herri kohesionatua ez izateagatik.

159. Portuak berak eta portuko enpresek ordaindu beharreko zergen azterketa egitea

Portuak ez dio Pasaiari inolako onura ekonomikorik ematen, hori gauza dadin formula egokia zein den aztertuko dugu.

UDAL ZERBITZUAK

160. Udal sailtetako langileekin elkarrizketak burutzea

Sail bakoitzeko indarguneak eta ahulguneak identifikatu eta aurrera begirako plangintzari ekiteko egingo dugu hau. Honek udalak behar dituen profil profesionalak zehazten eta fintzen lagunduko du zerbitzuaren kalitatea hobetuz.

161. Udalak eman behar dituen zerbitzuak zehazteko hausnarketa abiatzea

Kasuan kasu, horiek beste instituzio batek eman behar ote dituen edo partekatuak izan behar ote diren aztertuko dugu.

UDALTZAINGOA

162. Egiturazko aldaketa progresiboa abian jartzea

Asko dira udaltzaingoaren inguruan Pasaian jaso izan diren kexuak. Premisa horretatik abiatuta, udaltzaingoan aldaketa progresiboa eman dadin lan egingo dugu, gertuko agenteak eta artapena sustatuz.

163. Txanden berrantolaketa egitea aztertuko dugu

Barruti guztietan hauen presentzia bultzatuko dugu (oinez ere bai). Horretarako, erabili beharreko ibilgailuak eta protokoloak aztertuko ditugu. Bestalde, txanden berrantolaketarekin batera, trafiko agenteak behar ote ditugun aztertuko dugu.

164. Herritarrekiko gertutasuna bultzatzea

Udaltzaingoak herria ezagutzen duela bermatzeko formakuntza saioak jarriko ditugu abian. Bestela, ez badute herria ezagutzen (ezta ezagutzeko asmorik ere) ez dira herriaren zerbitzura jarriko. Hau horrela dela bermatuko dugu.

165. Salaketen kudeaketa hobetzea

Gaur egun ez dago berriaz salaketak modu egokian egiteko espaziorik. Herritarrei pribatutasuna eta erraztasunak emateko bideak irekiko ditugu.

166. Lan poltsaren eta LPEen kudeaketa propioa garatzea

Eskualdeko gainontzeko udalekin harremanetan jarriko gara eskualde mailako kudeaketa propioa garatzen ahalegintzeko, poltsa propioa eta eskualde mailako LPEak sustatuz.

BARNE ANTOLAKUNTZA

ERAKUNDE AUTONOMOAK

167. Erakunde autonomoen inguruko hausnarketa abiatzea

Bertako langileak udalaren lanpostuen zerrendan jaso behar ote diren aztertuko dugu eta euren funtzionamendua aldatu behar ote den ikusiko dugu. Prozesu hau inplikaturako erakundeekin eta bertako langileekin elkarlanean egingo dugu.

LANGILEGOA

168. Udal teknikariak txostengintzatik dinamizaziora igarotzea

Helburua hori izanik, jauzi kualitatiboa proposatzen dugu, burokraziaz aparte, gai eta ekimen konkretuetan agente aktibo bilaka daitezten.

169. Lanpostuen balorazioa egitea

Agintaldi honetan balorazioa egiteko urratsak emango ditugu eta emaitzaren arabera hori betetzeko epemuga eta kronograma ezarriko ditugu.

170. Langileen funtzioen eta eginbeharren manualak berritzea

Euren eginbeharrak egun udalak, eta batez ere, herritarrek dituzten beharretara egokitu beharra dago. Horretarako ekinbidea ezarriko dugu.

171. Sailen arteko harremanak hobetzea eta elkarlana areagotzea

Batzorde bateratu eta bereziak sortzea bultzatuko dugu eta sailen artean zenbait proiektu elkarlanean egitea proposatuko dugu. Zenbait departamentuk modu estankoan funtzionatzeari utzi behar diote eta taldean lan egitea bultzatuko dugu.

172. Udalean dagoen gaitasun eta potentzial teknikoa herritarren zerbitzura jartzea

Hau horrela izan dadin lan egingo dugu.

173. Behin-behinekotasuna murriztea

Udalaren behin-behinekotasuna murrizteko, barne promozioak eta karrera profesionalak garatzeko eta profil profesional berriak egokitzeko lan egingo dugu.

174. Langile batzordearekin elkarlan etengabea bultzatzea

Langileen ordezkarietara irisgarritasuna bermatuko dugu eta lan osasunaren inguruko batzordea abian jarriko dugu.

UDAL TRESNAK

175. Web orria gaur egungo beharretara egokitzea

Udalaren web orria berritzeko prozesua jarriko dugu martxan, webgunea gaur egun herritarrek dituzten beharretara egokituta.

176. Udal eraikinen mantenurako eta kontserbaziorako protokoloa lantzea

Protokoloa landu eta horien kalendarizazioa egingo dugu. Era berean, herritarrek *HorKonpon!* aplikazioa erabil dezaten sustatuko dugu, udal zerbitzuei mantenu gabezien berri emateko.

177. Udal kontratazioaren azterketa sakona egitea

Pribatizaturik dauden zerbitzuen publikazioa aztertuko dugu, sektore feminizatu eta prekarioenei lehentasuna emanez. Horrez gain, kontratuen gainean egiten den jarraipena zorrotzu eta kontratazio irizpideak hobetuko ditugu, bereziki klausula sozialetan, jasangarritasunarekin lotutakoetan eta hizkuntzaren normalizazioarekin lotutakoetan indarra jarritz.